

Gogoeta egiteko galderak

Denbora: 30 minutu.

- Hezkuntza faktore erabakigarria al da emakumeek garapenean oso-osorik esku har dezaten? Zein da hezkuntzaren eta esku-hartze horren arteko lotura?
- Zergatik dute oraindik asko egiteko gobernuek eta nazioarteko lankidetzak ugaltze-osasun zerbitzuak behar bezala jasotzeko aukeren esparruan?
- Emakumeak progresiboki ari dira sartzen ekoizpen eremuetan eta soldatadun esparruetan. Gizonek oraindik zergatik ez dute, oro har, esparru pribatuetako eta etxeko zeregin edo funtziorik egiten?
- Sexuaren arabera banakatutako estatistikak baliagarri izan al daitezke hainbat eremutan generoen arteko desberdintasuna iraultzeko ekintzak bultzatzeko?
- Konponbide egokia al da Estatuak dirua ordaintzea emakumeek egiten dituzten zaintza eta artatze lanengatik? Horrek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna areagotuko luke?
- Nola sustatu daiteke gizonek zenbait zereginetan ardura gehiago hartzea? Adibidez, ugaltzeari loturiko erantzukizunetan, edo hurkoak zaindu eta artatzeko lanetan.

Jatorria: Institutuak berak egina.